

Gidoilaria

«1955eko ekainaren 27a

Eguneroko maitea, handia naizenean gidoilaria izango naiz.»

Ezin izan diot algarari eutsi sei urte bete berriak nituela, egun horretan bertan, oparitu zidaten egunerokoan idatzi nuen esaldia irakurtzean. Orduan inork esan izan balit berrogeita hamar urte beranduago nire gidoirik bikainena amaitu ezinik arituko nintzela ez nukeen sinetsiko.

Herri txiki bateko neskato ameslaria nintzen garai hartan eta nahi izanda ere ezin imagina nezakeen zertan amaituko nuen lanean. Gidoilari izatearena, pelikula bat ikusi ondoren otu zitzaidan baina amets hura ez zen nire burutik etorri zen bezain azkar joan. Herri txiki batekoa izan arren, aita herriko medikua nuen, eta horrek nahiko egoera ekonomiko onean uzten gintuen. Beraz, unibertsitate ikasketak egiteko aukera izan nuen eta konturatu ordurako kazetaritza ikasketak amaituta nituen.

Emeki-emeki kazetaritza munduan tokitxo bat egitea lortu nuen (emakumea izanda egin nezakeen handiena) baina ez nintzen zoriontsu; gidoilari izateko ametsa, orain amesgaizto bihurtu dena, ezin nuen ahaztu. Etxean, lortutakoarekin harro egon behar nuela esaten zidaten aiton-amon, guraso eta anai-arrebek baina harro egoteko arrazoirik falta ez nuela banekien arren, ezin sei urte nituela hartu erabakia ahaztu.

Egoera horretan igaro nituen urte gutxi batzuk eta egun batean, Ander Uhalde idazleari elkarrizketa egiteko enkargua jaso nuen egunkariko zuzendaritzatik.

Uhalderen lana, argitaratu gabea izan arren, oso ezaguna zen berrogei urte baitzeramatzan bere nobela idazten etxetik ia atera ere egin gabe. Ia mitoa bilakatu zen idazle hura eta Euskal Herrian egiten zitzaion lehen elkarrizketa burutzeko enkargua niri eman zidaten!

Elkarrizketa hura egin behar nuela esan zidatenetik lo egin ezinik ibili nintzen; nirea izango zen Uhalderen lanaren nondik norakoak azaltzeko ohorea.

Elkarrizketako eguna iritsi zenean, inoiz baino urduriago nengoen eta nahiz eta elkarrizketa prestatzeko aste osoa izan nuen, bururatzen zitzaizkidan galdera guztiek hutsalak ziruditen hainbesteko entzutea zuen idazle (ez)ezagun hari egiteko.

Baina, hotz-hotzean pentsatuta, ez zegoen benetako arrazoirik Uhalde hain ezaguna izan zedin: berrogei urte zeramatzan bere nobela idazten eta oraindik ez zuen amaitu.

Hala ere, bazegoen zerbait Uhalderengan jendearen jakinmina pizten zuena. Ia inork ez zuen ezagutzen baina denek zuten haren berri gurea bezalako herri txiki batean. Denek ezagutzen zuten Uhalde inoiz kalean ikusitako norbait, berarekin ikasitakoren bat,...

Donostiako Maria Cristina hotelean egina nuen Uhalderekin hitzordua goizeko zortzietan, bederatziatarako lanean hasteko ohitura baitzuen telefonoz esan zidanez. Ahots lodia zuen, grabea, lasaia, baina bazegoen bere hitz egiteko moduan asaldatu ninduen zerbait. Oraindik ez nekien zer zen baina oraindik urduriago jarri ninduen eta zitara ez azaltzeko ideia ere ibili nuen buruan.

Ordu laurden lehenago iritsi nintzen Mari Cristina hoteleko kafetegira han egon nahi bainuen Uhalde iritsi baino lehenago eta kafe bero bat eskatu nion eseri ordurako nire mahaira gerturatu zen zerbitzariari azaroak 19 zituen goiz gris hartan, hotza, ezinegona bezala, hezurretaraino sartua bainuen.

Zerbitzariak kafea mahaira ekarri baino lehen gizon hilezuri bat eseri zitzaidan ondoan. Bere bisai ilunari erreparatu ordurako konturatu nintzen hura zela aste betez loa galarazi zidan gizona. Begi argiak zituen, argi eta hotz izaten diren horietakoak, sudur zorrotz eta txikia, buru-hezurrek erakutsi ohi dutena bezalakoa eta nire urduritasuna ene begiak bere ahoan pausatu ordurako areagotu egin zen. Ezpain txiki eta estu haiek ez zuten iribarre egiteko ohiturarik eta aho inguruan zituen zimurrek asko sufritu izandako pertsona zela adierazten zuten.

Bere begi argiak zorroztasunez pausatu ziren nigan eta une hartan bertan jakin nuen gizon hark nire bizitzaren nondik norakoa erabakiko zuela egun hartatik aurrera. Ez nekien nondik hasi, hitz egiteko nuen abildadea ere hutsean geratu zen gizon haren aurrean.

Halako batean, amaitezinak egin zitzaizkidan minutu gutxi batzuen bueltan, “egunon” lehor bat esan eta elkarrizketarekin hasi nedila adierazi zidan burua mahai gainean nituen koaderno eta lumaren aldera mugituz. Une batez, nire eztarritik hitzik ez zela aterako pentsatu banuen ere, sakon arnasa hartu eta orduan bertan bururatutako galderak egiten hasi nintzen.

Uhaldek, berrogei urte lehenago, Euskal Herriko historian oinarritutako nobela bat idazteko erabakia hartu zuela argitu zidan, baina berehala ohartu bide zen istorio hura eskasa izango zela. Beraz, historia aldatzea erabaki zuela aitortu zidan gizon misterioitsu hark. Franco gerra zibilean fusilatua izan beharrean 1936 ondoren boterean jarri eta Euskal Herriak izugarritzko errepresioa pairatuko zuen, 50eko hamarkadaren amaieran ETA sortu zuen eta gero Meliton Manzanasen eta Carrerorena etorri ziren, eta 75eko fusilamenduen...

Ez nekien zer pentsatu, bazirudien Uhaldek kontatzen ari zitzadana sinesten zuela baina aldi berean ezinezkoa iruditzen zitzaidan norbaitek, idazte hutsarekin, historia alda zezakeela pentsatzea. Ondoren konturatu nintzen zein erratuta nengoen...

Egin behar nion elkarrizketa ahaztu eta kontatzen ari zitzaidan istorioan murgildu nintzen bete-betean.

Uhaldek behin eta berriz azaldu zidan hasieran bere helburua fikziozko nobela bat idaztea zela baina orriak idazten joan ahala konturatu zela idazten zuena benetako bihurtzen zela egun gutxi batzuen buruan eta orduan ezinbesteko bilakatu zen berarentzat idazten jarraitzea; Euskal Herria gidatzen jarraitzea.

Halako batean, zerbait aitortu behar zidala eta, egunkariko zuzendariari elkarizketa hura nirekin hitz egiteko eskaini ziola esan zidan. Bere nobelan nire pertsonaiak egindako ibilbidea eta sei urte zituela egindako promesa hura ez omen zen alferrik; denak omen zuen bere arrazoia.

Orduan bai geratu nintzela benetan galduta; nire bizitza guztian okerrak ala zuzenak izan ustez hartu zituen erabaki guztiak ez ziren benetan nire erabakiak izan, Uhaldek hartu zituen erabaki guzti haiek bere "planei" jarraituz. Une hartan bertan hartu nuen gizon bitxi hark nigandik lortu nahi zuenaren kontzinetzia, baina ez nintzen esatera ere ausartzen.

Ez nuen horren beharrik izan berehala hartu baitzuen hitza Uhaldek isilune esanguratsu haren ondoren.

"Hainbeste urte eta gero, ideiak amaitu zaizkit, erreta nago" esan zidan bere bisai iluna oraindik gehiago ilunduz "eta norbait behar nuen nire lanarekin jarrai zezan. Horretarako idatzi nituen sei urte zenituela hartuko zenuen erabakia, erabaki harek zure bizitza guztian izan duen indarra, eta azken finean gaurko elkarizketa honetara ekarri zaituen bide hau".

Ezin nuen sinetsi entzuten ari nintzena. Eskizofreniko baten aurrean nengoela baino ezin nuen pentsatu eta halako batean, nire ezin sinetsia nabaritu izan balu bezala, Uhaldek bere etxera joateko gonbitea luzatu zidan.

Horrelako gauza sinesgaitzak gertatzen direnean ohikoa den bezala, gizon arraro hark esaten zidana sinesten ez nuen arren, ezin nion hura egia izango balitz nire elkarizketak izango zituen balio eta entzuteari entzungorrarena egin eta baietz erantzun nion; joango ginela bere etxera berak hala nahi bazuen.

Uhalde Antiguu auzoko pisu xume batean bizi zen. Etxeko atea ireki orduko itxi-usaina sartu zitzaidan sudur-zuloetan barrena eta ohartu nintzen idazteak ez ziola noizbehinka etxea txukuntzeko denborarik ere uzten.

Nire begiak iluntasunera ohitu bezain laster, egunkari pila bat ikusi ahal izan nuen lurlean barrena, altzarietan, etxeko txoko desberdinetan barreiatuta. Egia aitortu behar badut beldur pixka bat izan nuen une hartan, baina berehala ezabatu ziren nire ezbai guztiak.

Egongelan, leiho handi bati so, isilik, idazmakina baten tankera zuen zerbait ikusi ahal izan nuen eta hara hurbildu nintzenean Uhaldek berrogei urte haietan idatzitako milaka orrirekin egin nuen tupust. Milaka orri haien artean aurkitu nuen nire burua bapatean eta sortu berri nuen anabasan, gertuen nituen letrak irakurtzen hasi nintzen.

Orri guzti haietan zegoen laburbilduta Euskal Herriko azken berrogei urtetako historia, 1935tik 1975era, baina nork baieztatu ahal zidan niri orri haiek ez zituela Uhaldek gertakariak ezagutu ondoren idatzi?

Galdera hura bera Uhalderi egin orduko, farrez hasi zitzaidan eta berak eraiki pertsonai batengandik ez zuela gutxiago espero esan ondoren, nahi banuen frogatu egin genezakeela adierazi zidan.

Orduan bertan, ohartu nintzen Uhaldek bazekiela nola amaituko zen egun hura eta horregatik zegoela hain lasai; hartzen nuen erabakia hartzen nuela ere, ez baitzen nirea izango.

Hala ere, baietz esan nion; froga egin nahi nuela. Irribarre maltzur bat azaldu zen Uhalderen aurpegian nire erantzun hark ere ez zuela harritzen adieraziz.

Ezer esan gabe idazmakinarean aurrean eseri eta poliki-poliki berrogei urtetan izan zuen maitalerik fidelena laztantzen hasi zen.

"1975eko azaroaren 20an Franco generala hil zen gaisotasun luze baten ondorioz. Euskal Herria irauli zuen gertakaria izan zen hau..." irakurri ahal izan nuen luzatu zidan orrian. Baina ez nuen irakurtzen jarraitzeko adorerik izan eta korrika egin nuen alde lehen bi lerro haiek irakurri ondoren.

Ettxera iritsi eta ohean sartu nintzen egun hura ahalik eta azkarren amai zedin nahi bainuen, baina ez nintzen konturatzen nire bidea hasi baino ez zela egin. Ezin nuen ahaztu Uhaldek egun hartan kontatu zidan guztia eta nolabait txotxongilo bat bezala sentitzen nintzen; Uhaldek bere nahiaren arabera erabili zuen trapuzko panpina bat nintzen eta gainera bere idazmakinan idatzi zituen azken lerro haiek nituen buruan amesgaizto baten oihartzunak bezala. Ohean jira eta buelta aritu nintzen loak ezin harturik eta etsita, goizeko seietan RNE entzuten ari nintzela, hainbeste beldurtzen ninduen gertatu zen; Uhaldek idatzitakoa bete egin zen: "Franco generala gaur goizaldean hil da" esan zuen irratiko ahots dardartiak.

Berria ezagutu bezain pronto joan nintzen Uhalderen etxera eta irrifarre handi batekin ireki zidan atea.

"Orain sinesten dizut. Orain prest nago zuk hasitakoarekin jarraitzeko" esan nion egongelara sartu orduko.

"Ez da lan erraza izango. Euskal Herriko egoera politikoa erabat aldatu da orain baina nik ez dut ez indarririk eta ez gogorik honekin jarraitzeko eta badakit zuk ongi egingo duzula" erantzun zidan berak idazmakina aldera joz. Bere kaxan sartu eta berrogei urtetan bere lagunik minena izan zena eskaini zidan.

Banekien hitzak soberan zeudela une hartan eta bizitza aldatu zidan gizon hari besarkada bat eman eta idazmakina besapean nuela abiatu nintzen nire etxerantz. Bidean, nirekin gurutzatzen ziren guztien ezjakintasunean baino ezin nuen pentsatu. Ez zekiten nik izango nuela egun hartatik aurrera beraien bizitza, herria, gidatzeko ardura eta gaitasuna eta etxera heldu orduko ekin nion hogeita hamar urte luzez burutuko nuen lanari.

Izugarri gozatu nuen transizioa idazten, dena zen berria eta nire irudimenari hegan egiten utzi nion. Ondoren etorri ziren hauteskundeak, suetenak, ekintza polizialak, Irakeko gerraren aurkako mobilizazioak,... lan gogorra izan da niretzat eta orain, bere garaian Uhalde bezala, ideiak agortuta ditut, erreta nago. Gainera, hasierako ilusioa galdu dut eta askotan inertzia hutsez idazten dudala konturatu naiz. Bada garaia nire lekukoa beste norbaitek har dezan.

Hau dena kontatzen dizut, posta elektroniko hau irakurtzez amaitzen duzunean zure baitan geratuko delako Uhalderen eta nire lanarekin jarraitzeko edo amaitzeko ardura: erabakiak zure esku daude. Bihar

goizeko zortzietan Maria Cristina hotelean ikusiko gara. Badakit han izango zarela. Ezin diozu zuren patuari alde egin».